

IKERTRAMO programaren 2018-2019ko deialdia

Mondragon Unibertsitateko Zuzendaritza Kontseiluaren erabakia, 2019ko martxoaren 7koa, Unibertsitateko irakasle edo ikerlarien ikerketa-seiurtekoak ebaluatzeko ohiko deialdia onartu eta argitaratzeko dena.

Mondragon Unibertsitateak irakasleen ikerketa- eta transferentzia-aktibitateak ebaluatzeko deialdia argitaratu du, Mondragon Unibertsitateak eta Unibasqek Unibertsitateko irakaslegoaren ikerketa jarduera ebaluatzeko sinatutako hitzarmena, eta Unibasqen Administrazio Kontseiluak onartutako unibertsitateko irakasle eta ikerlarien ikerketa-jarduera ebaluatzeko protokoloa (Ikertramo protokoloa) kontutan hartuz.

OINARRIAK

Lehena.– Xedea

- 1.– Mondragon Unibertsitateko Fakultateetako (zentro propioetako eta atxikietako) kategoria guztietako barneko irakasle eta ikerlarien ikerketa-jarduera ebaluatzea da deialdiaren xedea.
- 2.– Sei urte naturalez osatutako seiurtekoan gainean egingo da ebaluazioa; urte horiek jarraituak edo etenak izan daitezke.

Bigarrena.– Ebaluazioa eskatzeko bete beharrekoak

Aipatutako irakasle edo ikertzaileak jarraian aipatzen diren egoeretako batean aurkitu beharko dira:

- a) Gutxienez 10 urteko ikerketa-esperientzia egiaztatu beharko du.
- b) Unibertsitate-irakaslego akreditazioa egiaztatuta izan beharko du.

Hirugarrena.– Eskaren formalizazioa

- a) Interesa duen pertsonak Fakultateko Koordinazio Orokorreko Talde / Zuzendaritza Batzordeari bideratutako ebaluaziorako eskabideorria (Ikusi I. eranskina) beteta aurkeztu beharko du 2019ko martxoak 7tik 11ra bitartean.
- b) Martxoak 12tik 14ra bitartean fakultateek eskatzaileei jakinaraziko die deialdian onartuak izan diren eta Mondragon Unibertsitateko Zuzendaritza Batzordeari jakinaraziko dio onartuen zerrenda.
- c) Mondragon Unibertsitateak Unibasqi jakinaraziko dio ebaluatu nahi dituen pertsonen zerrenda.
- d) Deialdian onartuak izan diren irakasle edo ikertzaileek 2019ko martxoaren 15etik apirilaren 15era bitartean egin ahal izango dute ikerketa seiurteko (Ikertramo) ebaluazio eskaera.
- e) Ikerketa-seiurtekoaren ebaluazioa 1-11 eremuetako baten kokatu behar da; (BOE .2018/11/26)
- f) Onartuei jakinaraziko zaie eskaerak egiteko erabili beharko duten Unibasqen aplikazio informatikoaren helbidea eta eskaera bide telematikoz egin beharko dute
- g) Behin eskaera aipatutako aplikazio informatikoan bete eta ixten denean, inprimaki bat sortuko da; inprimaki hau eskatzaileak sinatu beharko du eta fakultatean entregatuko du.

Laugarrena.– Eskabidearen edukia

1. Eskatzaileak honako hauek adierazi beharko ditu Unibasqen aplikazio informatikoan:

- a) Ebaluazioarako aukeratu dituen 6 urteen barne dauden eta bere iritziz aipagarrienak diren 5 ekarpen.

2018ko azaroak 26ko BOEn (Resolución de 14 de noviembre de 2018, de la Comisión Nacional Evaluadora de la Actividad Investigadora, por la que se publican los criterios específicos aprobados para cada uno de los campos de evaluación" jasotako ebaluazio-irizpideetakoren batean sailka daitekeen edozein unitate hartzen da «ekarpenzat».

2.- Ebaluazio prozeduraren edozein unetan Unibasqek eskaerarekin batera aurkeztutako fitxategi elektronikoen jatorrizko dokumentuak eska ditzake, haien baliotasuna eta bat-etortzea egiaztatzeko.

Bosgarrena.– Ebaluaziorako irizpideak

1. 1994ko abenduaren 2ko aginduaren 7. artikuluan eta Unibertsitate eta Ikerketako Estatu Idazkaritzaren 1994ko abenduaren 5eko Ebazpenaren 7. artikuluan ezarritako irizpide orokorrei jarraituko zaie ebaluazioan. Aipatutako irizpide orokorrak ezarritako irizpide zehatzekin osatuko dira, ebaluazio arlo bakoitzarako.
2. Ebaluazio-esparru bakoitzerako berariazko irizpideak, Unibasqeko zuzendariaren 2016ko urriaren 19ko ebazpenean jasotako Ikertramo programaren ebaluazio irizpide berak izango dira.

Seigarrena. Ebaluazio-prozedura.

1. Eskatzaileak curriculum vitae laburtuan gehitutako lanari buruzko iritzi teknikoa emango dute kontsultatutako Aholku Batzordeek eta, hala badagokio, baita adituek ere, curriculum vitae osoan zehaztutako testuinguruaren barruan.
2. Dagokion Aholku Batzordeak edo Unibasqeko Batzordeburuak izendatutako adituek egoki baderitzote, eskatzaileari, Unibasqeko koordinatzaile orokorren bitartez, bere CV-an aipatutako ekarpenen kopia bidaltzeko eska diezaiokete.
3. Iritzi teknikoa zero eta hamar bitarteko zenbaki baten bidez adieraziko da, eta gutxienez sei puntu beharko dira ebaluazio positiboa lortzeko sei urteko tarte batean.
4. Ebaluazio bakarren kasuan (1988ko abenduaren 31 arte garatutako ikerketa-jarduera), zero eta eskatutako tarte-kopurua hamar zenbakiarekin biderkatuz ateratzen den zenbakia bitarteko zenbaki batez adieraziko da iritzi teknikoa. Kasu horretan, esleitutako puntuazio osoa zati sei eginez ateratzen den zenbaki osoaren berdina izan behar du ebaluazio positiboa lortu duten tarteen kopuruak.
5. Aholku Batzordeek eta adituek emandako kalifikazioak ikusita, Unibasq-ek ezarriko du behin betiko banakako ebaluazioa, eta, nolana ere, deialdi honetako bosgarren atalean jasotzen diren irizpideak aplikatzea bermatuko du.

Zazpigarrena.– Ebazpena

1. Unibasqek Mondragon Unibertsitateari ebaluatutako irakasle edo ikertzaileen ebaluazio-emaitzen berri jakinaraziko dio; era berean, Mondragon Unibertsitateak Fakultateei ebazpen horren berri emango die.
2. Fakultateek, ebaluazioa arrazoitzeko Unibasq-ek bidalitako ebazpen indibidualizatua bidaliko die eskatzaileei.
2. Ebazpenek zein tarte ebaluatu duten adierazi beharko dute, tarte positiboa edo negatiboa izan den ere eta, hortaz, txostena baiezkoa ala ezezkoa ote den. Bestalde, ebaluazioa ezezkoa bada, dagokion ebaluazio txostena erantsiko zaio.
3. Ebazpen horren aurka berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango da, nahi izanez gero, Mondragon Unibertsitatearen aurrean, hilabeteko epean.
4. Ebazteko epea sei hilabetekoa izango da, eskaeraren ebazpena emateko eta jakinarazteko epea etetea adostu ahal izanez.

Zortzigarrena. Dokumentu-erregimena eta datu pertsonalen inguruko eskubideak.

1. Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraikiz eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa (RGPD), interesdunek emandako datuak Unibasq Agentziaren titulartasunpeko fitxategi automatizatu pertsonal batean sartuta geratu ahal izango dira, Agentziak deitutako beste prozesu batzuk garatzeko, betiere interesdunak prozesu horietan parte hartzen badu.

2. Eskatzaileak datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurkaratzeko eskubidea baliatu ahal izango du, eta, horretarako, idatzi bat helarazi beharko dio Unibasq Agentziari (San Prudentzio kalea 8, 01005 Vitoria-Gasteiz).

Bederatzigarrena. Errekurtsoak

1. Eskatzaileak ebaluazioa berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango dio Mondragon Unibertsitateari hilabeteko epean.

Hamargarrena.– Deialdia argitaratzea

Deialdi hau Mondragon Unibertsitateko web-orrian argitaratuko da eskabideak aurkezteko epea hasi baino lau egun lehenago.

Arrasaten, 2019ko martxoaren 7an

Vicente Atxa Uribe

Mondragon Unibertsitateko errektorea

I. ERANSKINA.- Ikerketa-seiurtekoa eta transferentzia-eremua ebaluatzeko eskabidea

Izenpetzen duen honek, _____-k,
NAN zenbakia _____ duenak, Mondragon
Unibertsitateko _____ Eskolako/Fakultateko irakasle
eta/edo ikerlari denak,

ESKATZEN DU:

Bere ikerketa-jardueraren EBALUAZIOA egin diezaioten, jarraian adierazten diren
XXXX, XXXX, XXXX, XXXX, XXXX eta XXXX urteak hartzen dituen seiurtekoari
dagokienez.

_____-n, _____-ko
_____-ren ____ (e)an.

Nori zuzendua: _____ Eskolako/Fakultateko
Fakultateko Koordinazio Orokorreko Talde / Zuzendaritza Batzordeari